

GAZTEEN KULTURA KONTSUMOA

KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO DE LA CULTURA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



GAZTEEN KULTURA KONTSUMOA



KULTURA SAILA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.biblioteca.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2012ko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet:
www.euskadi.net

Edita:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Lege gordailua:
VI 454-2012



AURKIBIDEA

1.	Sarrera	4
2.	Gazteen kultura-ohiturak eta -kontsumoa	6
2.1.	Kultura-kontsumoarengatiko interesa	6
2.2.	EAEko gazteriaren kultura-ohitura eta -praktikak	8
2.3.	Irrati-, telebista- eta prentsa-kontsumoa	11
2.4.	Euskara gazteen kultura kontsumoa	14
2.5.	Kultura-kontsumora sartzeko erak: IKTen pisua	17
2.6.	Gazteriaren parte-hartzea jarduera artistikoetan	20
3.	Gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko ereduak	23
3.1.	Kultura-politikak eta gazte-politikak, mugatzeko arlo zaila	24
3.2.	Kontsumoa garatzeko politiken eredu eta esperientziak	25
4.	EAEko gazteen kultura-kontsumoaren sustapena	29
4.1.	Eusko Jaurlaritzak sustaturiko ekimenak	30
4.2.	Beste ekimen interesgarri batzuk	33
5.	Ondorioak eta gomendioak	34

Kulturaren Euskal Behatokiak eginiko 2007-2008ko Kultura Ohiturei eta Kontsumoari buruzko Estatistikak egiaztatu zuenez, biztanleriaren kultura-kontsumoko eta -praktikako mailaren azalpen-faktore gisa ageri zen adin-taldea. Zehazki, gazteen eta kultura-kontsumoaren arteko harremanari buruzko datu behar beste adierazgarriak lortzea ahalbidetu zuen, eta datu horiek zehatzago aztertuko ditu orain azterlan honek.. Hain zuzen ere, estatistika horretan oinarrituta egin zuen Kulturaren Euskal Behatokiak beste hurbilketa bat gazteen kultura-kontsumora *Gazteak, Kultura eta Teknologia Berriak* azterlanarekin, Kultura Behatokiaren sarearen baterako lanaren esparruan, Kultura Behatokiaren arteko Nazioarteko IV. Jardunaldietan aurkezturikoan (2010). Azterlan horrek erabilitako metodologia kualitatiboak azterketa estatistikoaren emaitzak zehaztea eta osatzea ahalbidetu zuen.

Gazteen kultura-kontsumoa aztertzeko erabilgarri dagoen informazio estatistikorako beste hurbilketa bat egin nahi du txosten honek. Hurbilketa berri hori nazioarteko gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko politiken azterketarekin eta modelizazioarekin osatzen da, eta EAEn egindako berariazko batekin, horri buruzko zenbait gomendio eginez bukatzeko.

Erabilgarri dauden estatistikei dagokionez, zehaztu behar da informazio-oinarria (2007-2008ko Kultura Ohiturei eta Kontsumoari buruzko Estatistika) biztanleria osoaren kultura-kontsumoa aztertzeko diseinatu zela eta ez zehazki biztanleria gaztearena, *Gazteak, Kultura eta Teknologia Berriak* azterlan horretan ondorioztatzen denez, berezko ezaugarriak baititu, baita funtsezko eginkizuna eduki ere teknologia berrietan. Ildo horretan, informazio-oinarri horren muga bat bere antzintasuna da, hain zuzen ere, ez soilik inkesta duela zenbat urte egin zela kontuan hartuta, baizik eta, batez ere, aldaketa teknologikoak bizkortu egin direlako: 2007an oraindik ez zen gertatu gaur egun ezaugarri diren belaunaldi berriko telefonia mugikorreko hedapena edo Interneteko gizarte-sareen leherketa, batez ere biztanleria gaztearen artean eragina dutenak.



Muga horiek eta guzti, 2007-2008ko Kultura Ohiturei eta Kontsumoari buruzko Estatistikaren inguruan egindako esplotazio berriak biztanleria gaztearen artean adin-talde desberdinak kontuan hartuta, gazteen kultura-kontsumoan dauden aldeak atzematea ahalbidetzen du, batez besteko orokorrean nahiz kolektiboaren barrukoan. Era berean, kultura-kontsumoko modu desberdinak ikusten dira gizon eta emakume gazteen artean.

Gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko politika publikoei dagokionez, hurbilketa bikoitza egiten da azterlanean. Lehenik, modelizazio bat ezartzen da, nazioartean erreferentziazkoak diren esperientzien azterketatik abiatuz, eta bigarrenik, EAEn esparru horretan bultzaturiko ekimenak aztertzen dira.

Azken batean, errealitatearen argazkiak nahiz kasuen azterketak gomendio jakin batzuk funtsatzen dituzte, EAEn kultura- eta gazte-politikak garatzeko ardura dutenen interesekoak izan daitezkeen gomendioak, hain zuzen ere. Horregatik, *III. Gazte Planaren (2020)* elaborazioan burutzen ari diren gogoeta- eta partaidetza-prozesuaren emaitzak kontuan izan dira txostenaren elaborazioan.

EAEko gazteen kultura-ohiturak eta -kontsumoa


2

2.1. Kultura-kontsumoarengatikiko interesa

Oro har, EAEko biztanleriaren batez bestekoak baino interes txikiagoa erakusten dute kultura-jardueren inguruan EAEko gazteek. Aztertutako ia jarduera guztietan, termino globaletan adierazitako interesa gazteek adierazitakoa baino zertxobait handiagoa da, alde handiagoarekin musika klasikoko kontzertuen kasuan (1,3). Dena den, nabarmentzekoa da egungo musikaren eta zinemaren inguruan erakusten duten interes handiagoa.

1. grafikoa.

Kultura-jarduerengatikiko interesa · Gazteak eta EAEko guztizkoa
(Batez besteko balorazioa 1etik 10eraino)




Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Biztanleria gaztearen adin-tarteen artean ez dago desberdintasun handirik kultura-jarduerengatikiko interes-mailan. Dena den, azpimarratu behar da gazteen kolektiboaren barruan dauden aldeak gazteen eta biztanleria osoaren artean daudenen antzekoak direla. Musika modernoko kontzertuak eta zinema interes handiago dute gazteen artean, eta irakurketarekin edo museo eta erakusketetara egindako bisitekin loturikoek interesa handiago eragiten duten 25-29 urteko taldean.

2. grafikoa.

Kultura-jarduerengatiko interesa - Gazteen adin-taldeak

(Batez besteko balorazioa 1etik 10eraino)




Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Emakume gazteak dira jarduera guztietan interes handiena dutenak, egunkarien irakurketan izan ezik. Emakumeen aldeko interes-mailaren alde handiena liburuen irakurketan, liburutegietarako bertaratzean eta dantzan gertatzen da.

3. grafikoa.

Kultura-jarduerengatiko interesa - Gazteak sexuaren arabera

(Batez besteko balorazioa 1etik 10eraino)



Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

2.2. EAEko gazteriaren kultura-ohitura eta -praktikak


Interes-mailarekin kontrastean, guztizkoarekiko gazteek egiten dituzten kultura-jarduerak gehiago dira kasu guztietan antzerkira eta opera-ikuskizunetara bertaratzea izan ezik.

Biztanleria gazteak gehien eginiko jardueren artean musika entzutea eta zinemara bertaratzea daude % 95,7arekin eta % 86,1arekin, batez besteko globalaren oso gainetik dauden zifrekin, % 77,9 eta % 54,1 baitira, hurrenez hurren. Gazteen erdiak baino gehiagok urtean egindako bigarren jarduera multzoa irakurketa (% 72,3), kontzertuetara bertaratzea (% 69,5) eta liburutegietara bertaratzea (% 52) dira, bi azken kasu horietan 20 puntutik gorako aldeekin biztanleria osoarekin alderatuta.

Azkenik, hamar gaztetik lauk museo bat bisitatu dute azken urtean eta biztanleria gaztearen laurden batek, aldiz, galeria edo erakusketak bisitatu ditu (% 24,1) edo antzerkira bertaratu da (% 21,5). Minoritarioagoa da dantza-ikuskizunetara eta opera-ikuskizunetara bertaratzea (% 9,7 eta % 3,7).

4. grafikoa.

Kultura-jardueren egikaritzapena azken urtean · Gazteak eta EAEko guztizkoa (%)



Fuente: Estadística de hábitos, prácticas y consumo en cultura 2007-2008.


Adin-taldeen arabera, egikaritzapen-maiztasun handiagoko jarduerak musika entzutea eta zinemara bertaratzea izaten jarraitzen dute kasu guztietan ere. Alde handienak erakusten dituen jarduera liburutegietara bertaratzea da, zenbat eta adin txikiagoa orduan eta bertaratze han-

diagoa, eta ikasketa-denboraren eta eskaintza honen erabileraren arteko zuzeneko harremana izan liteke horren arrazoia. 15-19 urteko taldean % 67,2 da bertaratzea, eta adin handiagokoen artean % 40,8 da.

Liburuen irakurketak eta kontzertuetara bertaratzeak joera desberdinak erakusten dituzte. Horrela, lehenengo kasuan, gazteen zenbat eta adin handiagoa irakurketa-maila orduan eta handiagoa, eta aldi berean, zenbat eta adin handiagoa orduan eta kontzertuetarako bertaratze txikiagoa. Dantzaren kasuan ere aplika daiteke azken joera hori. Bestalde, museotarako, antzerkirako, galeria eta erakusketetarako eta opera-ikuskizunetarako bertaratzeari dagokionez, 20-24 urteko talde da kultura-jardueren egikaritzapen-maila txikiagoa duena.

5. grafikoa.

Kultura-jardueren egikaritzapena azken urtean · Gazteak adin-taldeen arabera (%)




Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Azterturiko hamar kultura-jardueretatik hirutan soilik gainditzen dituzte gizon gazteek kultura-praktikan emakumeak: alde txikiekin musika entzutean (1,5 puntuko aldea), zinemara bertaratzean (2,3 puntuko aldea) eta nabarmenagoa kontzertuetarako bertaratzean (7,5 puntuko aldea).

Emakumeen eta gizonen arteko kultura-praktika handienak, emakumeen aldekoak, liburutegetarako bertaratzean, antzerkira bertaratzean eta irakurketan gertatzen dira (14,4, 12,4 eta 12,2 puntu).

6. grafikoa.


Kultura-jardueren egikaritzapena azken urtean · Gazteak sexuaren arabera (%)



Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Kultura-ohitura eta -praktikei dagokienez, *III. Gazte Planaren (2020)* elaborazioan honako adierazle hau hartzen da erreferentziazat, besteak beste: liburu-irakurketa azken hilabetean, gazteen arteko Espainiako batez bestekoarekin¹ eta EAEren guztizkoarekin alderatzeko. Ildo horretan, nabarmentzekoa da datuak irakurketari dagokionez Espainiako batez bestekoa baino handiagoa izanagatik (% 41,6 batetik eta % 39,6 bestetik) EAEko guztizko batez bestekoaren azpitik daudela (% 45,7). Eta museoetarako bisitari dagokionez, Espainiako gazteek eta EAEko globalak baino jarduera-zifra zertxobait txikiagoak erakusten dituzte EAEko gazteek.

7. grafikoa.

Kultura-jarduerako adierazleak · *Gazte Plana 2020* (%)

Iturriak: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika, eta 2006-2007ko Espainiako kultura-ohitura eta -praktikei buruzko Inkesta.


¹ 15-24 urtean kontabilizatzen dira konparatiba egiteko.

2.3. Irrati-, telebista- eta prentsa-kontsumoa

Gazteek denbora gutxiago baliatzen duten telebista ikusteko eta irratia entzuteko EAEko biztanleriak oro har baino. Zehazki, astean 2,1 ordu gutxiago eskaintzen dizkiote telebistari eta 3,8 ordu gutxiago irratia entzuteari. Ziur asko, gazteen praktiken aniztasun handiagoak azaltzen ditu alde horiek Interneti edo beste jarduera batzuei eskainitako denbora gaineratzen baitute, esaterako². Bestalde, ez da alde handirik ikusten gizon gazteen eta emakume gazteen artean: gizon gazteek zertxobait gainditzen dituzte emakumeak irratia entzuteko orduan eta emakumeek, berriz, gizonezkoek baino telebista ordu gehiago ikusten dute.

8. grafikoa.

Telebistari eta irratitari eskainitako asteko batez besteko orduak · Gazteak, EAEko biztanleria eta gazteak sexuaren arabera (Unitateak: orduak)



Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.


* Oinarria: Normalean telebista ikusten duten pertsonak, biztanleria gaztearen % 93,2 eta guztizko biztanleriaren % 93,2.

** Oinarria: Normalean irratia entzuten duten pertsonak, biztanleria gaztearen % 71,0 eta guztizko biztanleriaren % 76,9.

Bi praktika horietako adin-tarteen araberrako konparatibari dagokionez, 15-19 urteko gazteek irratia entzuteari eskainitako ordu kopuru txikia da (9,3) nabarmentzekoa, 3,4 orduko aldeaz 20-24 urteko taldearekin. Telebistari dagokionez, aldiz, ez da alde nabarmenik ikusten hiru taldeen artean.

² Azterlan honen 2.5 atalean ikusiko dugunez, gazteen Interneterako sarbide-maila globala baino askoz ere handiagoa da. Gainera, beste praktika mota batzuetan, hala nola musika entzutea, asteko orduen batez bestekoa 11 ordu da gazteen artean eta batez besteko globala, aldiz, 8,7 ordu.

9. grafikoa.

Telebistari eta irratitari eskainitako asteko batez besteko orduak · Gazteak adin-taldeen arabera (Unitateak: orduak)


Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

* Oinarria: Normalean telebista ikusten duten pertsonak, biztanleria gaztearen % 93,2

** Oinarria: Normalean irratia entzuten duten pertsonak, biztanleria gaztearen % 71,0.

EAEko gazteek biztanleriaren batez bestekoak baino maiztasun txikiagoarekin irakurtzen dituzte egunkariak. Erdiak pasatxok (% 51,7) egunero edo ia egunero irakurtzen dituzte egunkariak eta biztanleria osoaren batez bestekoa, aldiz, % 58,4 da. Emakume gazteak dira prentsa idatzia gutxien irakurtzen dutenak (% 46,4) eta gizon gazteak ere ez dira EAEko batez besteko zifrara (% 56,6) iristen.

10. grafikoa.


Egunkariaren irakurketa egunero edo ia egunero · Gazteak, EAEko biztanleria eta gazteak sexuaren arabera (%)

Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Adin-taldearen arabera, joerak erakusten duenez gazteen arteko adina zenbat eta handiagoa izan orduan eta egunkariak irakurtzeko ohitura handiagoa. Horrela, 25-29 urteko gazteen artean % 58,8k egunero edo ia egunero irakurtzen du egunkaria, EAEko batez besteko globalaren gainetik (% 58,4). Beste aldean, gazteenek hamarretik lauko proportzioan soilik egiten dute praktika hori eta 20-34 urtekoen artean hamarretik bostera iristen da.

11. grafikoa.

Egunkarien irakurketa egunero edo ia egunero · Gazteak, EAEko biztanleria eta gazteak sexuaren arabera (%)



Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.


2.4. Euskara gazteen kultura kontsumoan

Irakurketa-ohitura duten gazte elebidunen % 43,5ek euskarazko liburuak irakurri ditu eta biztanleria elebidun osoaren artean % 37,5era iristen da ehuneko hori. Gazteen taldearen artean euskarazko irakurleen proportzio handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 45,3 eta % 41,6, hurrenez hurren).

Egunkarien irakurketan ere proportzio handiagoa dago euskaraz edo bereizgabe euskaraz edo gaztelaniaz irakurtzen duten gazte elebidunen artean biztanleria elebidun osoaren artean baino (% 35,1 eta % 33,8, hurrenez hurren) Euskarazko antzerki-ikuskizunetara bertaratzeari dagokionez, aldiz, bertataruriko biztanleria elebidun osoaren proportzioa gazteena baino handiagoa da (% 46,9 eta % 41,9, hurrenez hurren), eta azken horien artean emakumeek erakusten dute bertaratze handiena (% 44,1).

12. grafikoa.

Euskarazko kultura-kontsumoko adierazleak · Gazteak, EAEko biztanleria eta gazteak sexuaren arabera (%)



Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

* Oinarria: Azken hiru hilabeteetan aisiari, lanari edo ikasketei loturiko libururen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanleria elebidunaren % 66,9 eta biztanleria gazte elebidunaren % 74,2.


** Oinarria: Egunkariak gutxienez astean behin irakurtzen dituzten pertsona elebidunak, biztanleria elebidunaren % 86,2 eta biztanleria gazte elebidunaren % 86,2.

*** Oinarria: Azken urtean antzerki-ikuskizunetara bertaratu diren pertsona elebidunak, biztanleria elebidunaren % 24,5 eta biztanleria gazte elebidunaren % 23,9.

Adin-taldeak hartuta, alde nabarmenak liburuen irakurketan zein euskarazko antzerkirako bertaratzean gertatzen dira, eta adin txikieneko gazteak dira kontsumo mota hori giten dutenak.

13. grafikoa.

Euskarazko kultura-kontsumoko adierazleak · Gazteak adin-taldeen arabera (%)



Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

* Oinarria: Azken hiru hilabeteetan aisiari, lanari edo ikasketei loturiko libururen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanleria gazte elebidunaren % 74,2

** Oinarria: Egunkariak gutxienez astean behin irakurtzen dituzten pertsona elebidunak, biztanleria gazte elebidunaren % 86,2.


*** Oinarria: Azken urtean antzerki-ikuskizunetara bertaratu diren pertsona elebidunak, biztanleria gazte elebidunaren % 23,9.

Ikus-entzunezko bitartekoen kontsumoari dagokionez, pertsona elebidunen artean, biztanleriak oro har bere telebista-denboraren ehuneko handiagoa eskaintzen dio euskarazko telebistari biztanleria gazteak baino (% 32,9 eta % 29, hurrenez hurren). Alderantz gertatzen da irratia kasuan, % 38,3 eskaintzen baitio biztanleria elebidun gazteak euskarazko irratiari eta % 36,1, aldiz, EAEko biztanleria elebidunaren globalak. Gazte elebidunen artean emakumezkoak dira irratian zein telebistan beren denboraren zati handiena euskarazko eskaintzari ematen diotenak.

EAEko gazte elebidunen adin-taldearen artean ez dago alde aipagarriarik euskaraz bere telebista- eta irrati-kontsumoan duen pisu erlatiboari buruz. Azpimarratzekoa da, aldiz, kasu guztietan ere euskararen pisua argi eta garbi handiagoa dela irrati-kontsumoan telebista-kontsumoan baino.

14. grafikoa.

Euskarazko irrati eta telebistaren kontsumo-adierazleak. Gazteak, EAEko biztanleria eta gazteak sexuaren arabera (%-a lanegunetan telebista ikusteari eta irrati entzuteari eskainitako orduen guztizkoaren gain)




Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

* Oinarria: Normalean telebista ikusten duten pertsonak, biztanleria elebidunaren % 91,4 eta biztanleria gazte elebidunaren % 94,3.

** Oinarria: Normalean irrati entzuten duten pertsona elebidunak, biztanleria elebidunaren % 76,1 eta biztanleria gazte elebidunaren % 69,4.

15. grafikoa.

Euskarazko irrati eta telebistaren kontsumo-adierazleak · Gazteak adin-taldearen arabera (%-a lanegunetan telebista ikusteari eta irrati entzuteari eskainitako orduen guztizkoaren gain)



Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

* Oinarria: Normalean telebista ikusten duten pertsona elebidunak, biztanleria gazte elebidunaren % 94,3.

** Oinarria: Normalean irrati entzuten duten pertsona elebidunak, biztanleria gazte elebidunaren % 69,4.


2.5. Kultura-kontsumora sartzeko erak: teknologia berrien pisua

Etxean IKT ekipamendua izatea edo ez izatea biztanleriak kulturara sartzeko dituen kanalen eta ekipamendu horrek kultura-kontsumoan duen inpaktuaren adierazgarri da. Egiazta daitekeenez, biztanleria gazteak etxeko IKT ekipamendu handiagoa du biztanleriaren globalak baino, eta honako hauek dira batzuen eta besteen arteko aldeak: gazteen % 78,9k PCak ditu eta biztanleria osoaren % 60,5ek, eta eramangarrietan dagoen aldea % 43,6 batetik eta % 28,3 bestetik da, eta Internetarako loturan % 83,7 batetik eta % 59,1 bestetik.³

Gazteen artean, PCak baliatzeari dagokionez gertatzen da alde nabarmenean, gizonezkoen kasuan % 83,8 eta emakumeen kasuan % 73,6 baita.

16. grafikoa.

Ettxeko IKT ekipamendua · Gazteak, EAEko biztanleria eta gazteak sexuaren arabera (%)




Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Gazteen arteko adin-taldearen arabera, joera berdina da, zenbat eta gazteago orduan eta etxeko IKT ekipamendu gehiago. Internetarako sarbidea oso orokortuta dago 15-19 urteko gazteen artean, % 90,9k baitauka sarerako konexioa.

³ EUSTATEk eskaintzen dituen Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI-Familiak 2012) datu eguneratuenean erakusten dute adin-faktore garrantzitsua dela etxeko IKT ekipamenduari dagokionez. Iturri horren arabera, 15-24- urteko gazteen % 95ek ordenagailu du eta % 93,1ek Internetarako lotura eta EAEko batez bestekoa, aldiz, % 71,8 eta % 66,9 da, hurrenez hurren.

17. grafikoa.


Etxeko IKT ekipamendua · Gazteak adin-taldeen arabera (%)

Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Adierazle gehienetan ikus daiteke Internetek gazteen kultura-kontsumoan duen garrantzia. Gazteen % 66,3 kultura-kontsumoa egiteko sartzen da Interneten, sexuen arteko alderik gabe, eta biztanleria osoa hartuz gero % 39,1 jaisten da zifra hori. Internet bidez egunkarietara sartzen diren gazteen ehunekoaren aldea (kontuan izanda egunkariak gutxienez astean behin irakurtzen dituztela) 8,9 puntu gaintik dago biztanleria osoarenarekiko eta deskargaturiko filmetan sartzeko aldea handiagoa da, 14,9 puntu.

Biztanleria gazteko gazteenak, 15-19 urte, dira Internetera gehien sartzen direnak kultura-kontsumoren bat egiteko, % 72,6, baina baita gutxien erabiltzen dutenak egunkariak irakurtzeko.

18. grafikoa.


Internet bidezko kultura-kontsumoaren adierazleak · Gazteak, EAEko biztanleria eta gazteak sexuaren arabera (%)

Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

* Oinarria: Egunkariak gutxienez astean behin irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleriaren % 86,6 eta biztanleria gaztearen % 85,0.

** Oinarria: Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak (egunero edo ia egunero, astean zenbait alditan, asteburuetan, hilabeteetan zenbait aldiz, edo maiztasun gutxiagorekin), biztanleriaren % 63 eta biztanleria gaztearen % 85,6.

19. grafikoa.

Internet bidezko kultura-kontsumoaren adierazleak · Gazteak adin-taldearen arabera (%)

Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

* Oinarria: Egunkariak gutxienez astean behin irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleria gaztearen % 85,0.


** Oinarria: Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak (egunero edo ia egunero, astean zenbait alditan, asteburuetan, hilabeteetan zenbait aldiz, edo maiztasun gutxiagorekin), biztanleriaren % 63 eta biztanleria gaztearen % 85,6.

2.6. Gazteriaren parte-hartzea jarduera artistikoetan

Gazteen % 39,8k jarduera artistikoetan parte hartzen du, eta EAE osoan, aldiz, biztanleriaren % 34,3k egiten du. Gazteen artean emakumeak dute maila handiagoa kultura-jarduerak egiteari dagokionez (% 45,4) eta adin-taldeak kontuan izanda 15-19 urtekoen parte-hartzea da nabarmentzekoa (% 47,1).

20. grafikoa.

Kultura-jardueretan parte hartzen duten pertsonak · Gazteak, EAEko biztanleria eta gazteak sexuaren eta adinaren arabera (%)




Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Jarduera nagusien artean argazkilaritza nabarmentzen da, gazteen % 30,7k eta EAEko biztanleriaren % 32,1ek praktikatzeko baitu. Gainerako jardueretan alde handiak daude gazteen praktikaren eta datu globalen artean gazteen alde: tresna bat jotzea 13,1 puntu, pintura/marrazketa 6,7 puntu eta idaztea 6,1 puntu.

Sexuaren arabera, emakumezko eta gizonzko gazteen arteko alde handienak pintura/marrazketan eta idazketan gertatzen dira (8,8 puntu emakumezkoen alde eta 5,2 puntu gizonzkoen alde, hurrenez hurren).

21. grafikoa.

Jarduera artistikoetan parte hartzea jarduera motaren arabera · Gazteak, EAEko biztanleria eta gazteak sexuaren arabera (%)




Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Adin-taldeen arabera, esan daiteke, oro har, 15-19 urteko taldea dela kultura-jarduera gehien egiten dituen taldea, argazkilaritza izan ezik, praktika hori ohikoagoa baita adin handiagoko gazteen artean.

22. grafikoa.

Jarduera artistikoetan parte hartzea jarduera motaren arabera · Gazteak adin-taldeen arabera (%)




Iturria: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Jarduera artistikoetan parte hartzea da *III. Gazte Planean (2020)* hautaturiko adierazleetako bat eta 15-29 urteko biztanleriarentzat. Adierazle horretan 15-29 urteko adin-tartea erabiltzen da, ez dagoelako kontraste-daturik Espainiako inkestan eta bai ordea Europako gazteriariburuz 15-30 urteko tarteari dagokionez. Datuek jarduera artistikoetako parte-hartze handiagoa adierazten dute EAEko gazteen artean EBko gazteen artean baino (% 39,8 eta % 32,6, hurrenez hurren).

23. grafikoa.

Kultura-praktikak adierazleak *Gazte Plana - 2020* (%)



Iturriak: 2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika eta Flash Eurobarometer 319 Europako Batzordea.

Gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko ereduak

3

Atal honetan adierazten diren politika-eredu eta programa eta ekimenak argia ekarri nahi dute gazteen kultura-kontsumoaren sustapenari dagokionez Europan gertatzen ari diren joera orokortuenei buruz. Erabilitako tresnei dagokionez aldeak gaindituta, esan daiteke joera guztiak ere oinarritzko printzipio batean oinarritzen direla: kultura baliatzea gazteen funtsezko eskubidea delako ustea, gazte horiek erabateko eskubide eta erantzukizunak dituzte kide gisa gizarte horretan parte har dezaten.

Dena den, politika guztien atzean helburu erkide bat badago ere, hots, kontsumoa sustatzea, alde nabarmenak daude kontzeptuzko ikuspuntutik zein programa espezifikoak martxan jartzeari dagokionez.

Lehenik, kontuan hartzekoa da biografia zabal batek argi eta garbi adierazten duela ez dagoela konpromiso argirik kulturaren, gazteriaren eta kultura-kontsumoaren gainean. Txosten honen helburua gai horietan sakontzea ez bada ere, politikak eta loturiko programak aztertzeo garaian, beharrezkoa da bakoitzaren eragin-esparruak definitzeko zailtasuna kontuan izatea.

Ildo horretan, hainbat ildo eta hurbilketa daude, guztiak ere zabal azterturikoak, kultura-politiken esparruan (demokrazia eta demokratizazioa kontzeptuekin, esaterako) zein gazteriarekin loturikoetan, politika integral eta bermatzaileen arteko eztabaidekin «gazte kondizio berria» deiturikoari loturikoak.

Posizionamendu teoriko globalagoetatik haratago, bada kontuan hartu beharreko bigarren puntu bat egungo joerak aztertzerakoan: biztanleria gazteari kultura-eskaintzaren kontsumitzaile, hartzaile edo erabiltzaile gisa zuzenduriko politika eta programen eta gazteak kultura-jardueraren eta -dinamikaren agente aktibo eta parte-hartzaile gisa identifikatzen dituztenen arteko bereizketa.

3.1. Kultura-politikak eta gazte-politikak, mugatzeko arlo zaila

Gaur egun ez dago Europa osoko lege-esparrurik biztanleria gazteak kulturarako duen sarbidea arautzen duenik, eta hori ez da harrizkoa gazte-politiken multzoak berez dituela erregulazio-erreferente gutxi. Ildo horretan, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean bilduriko XI. tituluaren («Gizarte-politika, hezkuntza, lanbide-heziketa eta gazteria» 3. kapituluaren 149. artikulua⁴ da lege-erreferentzia nagusia eta Europako gazteen arteko trukeak eta haien mugikortasuna soilik aipatzen ditu, gazte-politikaren beste alderdirik aztertu gabe. Bestalde, Europa osorako gazte-politikaren erreferentzia gisa aipatzekoa da 2001ean *Europako Batzordearen Liburu Zurian: Gazteriarentzako bultzada berri bat Europan* lana onartu izana⁵, eta lan horretatik eratoritzen da Lisboako Estrategia, estatu kideen artean gazte-politiken arloan erreferentziazko esparru erkide bat ezartzen duena.

Antzeko zerbait gertatzen da kultura-politikari dagokionez Europa osorako: eratzeko tratatua-ren 151. artikulua berak estatu kideen arteko lankidetzat hartzen du Europar Batasuneko jardunaren ardatz nagusitzat. Eta kontzeptuzko erreferenteei dagokienez, gaur egun aipatzekoa da Kultura Adierazpenen Aniztasuna Babesteko eta Sustatzeko Konbentzioa⁶ Unescoaren 33. Konferentzia Orokorrean onarturikoa eta Kulturaren 21 Agenda⁷, 2004ko maiatzean Bartzelonan onarturikoa.

Europatik haratago, haatik, estatu bakoitzak bere erregulazioak ditu kultura- eta gazte-arloan eta, gazteen kultura-kontsumoaren sustapena eta biztanleriaren sektore horren kulturarako sarbidea herrialde garatu gehienetan modu batean edo bestean presente badago ere, ez dago jardun-esparru horietara hurbiltzeko ildo argirik eta sarritan, horretan printzipio batzuei edo estrategia garbi bati erantzun baino, programa eta ekimen jakin batzuk abiaraztean kontzentratzen dira, normalean patrioiak errepikatzen dituztenak eta dagokien inpaktuak betiere jarraipen egokia ez duelarik. Izan ere, bidea dago betetzeko gazteak kulturara sartzeko politiken aplikazioaren berrikuntzan. Ildo horretan, nabarmentzekoak dira IKTen erabilera intentsiboagoaren aldeko apustua egitearen aldeko zenbait ekimen.

4 www.eur-lex.europa.eu/es/treaties/dat/12002E/pdf/12002E_ES.pdf

5 www.eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2001:0681:FIN:ES:PDF

6 www.unesdoc.unesco.org/images/0014/001429/142919s.pdf

7 www.agenda21culture.net

3.2. Gazteen kultura-kontsumoa garatzeko politiken eredu eta esperientziak

Hainbat herrialdeetako gazteen arteko kultura-kontsumoa sustatzera zuzenduriko programen hautaketatik eta azterketatik abiatuta, zenbait politika-eredu planteatu daitezke alderdi batzuetan edo besteetan eragiten dutenak eta biztanleria gaztearengana hainbat ikuspuntutatik hurbiltzen direnak.

Gauzak horrela, honela sailka daitezke politika-ereduak gazteen kulturen sustapenari dagokionez:

- **Prezio-politikak:** horrelako politiketan bilduriko programak dira ohikoenak, baita antolamendu-ahalegin txikiena dakartenak ere. Gero eta ohikoagoak dira deskontuak edo kultura-eskaintza, -zerbitzu eta -produktuen doakotasuna biztanleria gaztearenarentzat (museoak, zineak, antzokiak, jaialdiak, kontzertuak, eta abar).
- **Espresibitate-politikak eta eskaintzaren egokitzapena:** kontsumorainoko sorkuntza-garapen guztiaren protagonismoa gazteei eskaintzean oinarritzen dira politika hauek, gazteei dagozkien sortzeko eta kontsumitzeko moduak biltzen dituen espresio eta kultura-kontsumoko esparru bat sortuta. Ildo horretan, IKTak nabarmen agertzen dira horrelako politiketan, teknologia horiek egunerokotasunean bilduta eta egunerokotasunaren zati direla esan baitaiteke, baita gazteen espresio eta kultura-kontsumo moduen zati ere. Hezkuntza-osagai argia ere izaten dute honelako politikek.
- **Integrazio- eta gizarteratze-politikak:** publiko espezifikoetara zuzenduta daudelako bereizten dira honelako politikak, gazteak izateaz gain, gizarte-bazterkeriako arriskuan baitaude, modu batean edo bestean. Hemen biltzen diren programek gazteen arteko kultura-kontsumoa bildu nahi dute integrazio eta gizarteratzeko beren aukerak hobetzeko mekanismo gisa.

Nazioarteko programen hautaketaren deskripzioaren aurretik, aipatzekoa da ez dagoela in-formaziorik horiek gazteen kultura-kontsumoaren gain duten inpaktuari buruz, eta, hori horrela, proposamenaren interesak bultzatu du batez ere hautaketa.

a. Prezio-politiketan oinarrituriko programak

- **One Euro Museums** (www.1euromuseum.be)

Belgika. Nori zuzendua? 26 urtetik beherakoei.

Programa honen bidez, 26 urtetik beherako guztiak euro 1eko prezioan sar daitezke museo guztietara. Flandriako gobernuak finantzaturiko programa da museoen erabilera sustatzeko biztanleria gazteenaren artean.

- **Cheque-cultures** (www.cheques-cadeaux-culturels.com)

Frantzia. Nori zuzendua? Jendeari, oro har.

Ekitaldietara, ikuskizunetara eta abar bertaratzeko prezio murriztuak eta eskaintzak eskaintzen dituen taloitegi-eskaintza batean datza programa. Hiru taloitegi mota daude: cheque-lire (liburuak erosteko), cheque-disque (diskoak, CDak eta abar erosteko) eta cheque-culture (deskontuekin eta doako sarrerekin zinema, antzoki, kontzertu-areto eta abarretarako).

40 urtetik gorako ibilbidea bete duen Groupe Chequedejeuner (www.groupe-cheque-dejeuner.com) enpresaren ekimena da programa hau.

Programa hau ekimen pribatua bada ere eta jende gazteari soilik zuzenduta ez badago ere, kontuan hartu beharreko ekimena da, 10 urtetik gorako ibilbidearen eta lorturiko emaitza onen ondorioz.

- **Entradas gratuitas y descuentos**

Italia. Nori zuzendua? 18 urtetik beherako Europar Batasuneko herritarrei.

Baterako ekimena da, Gazte-politiketarako ministerioak, PaBAAC erakundeak (Direzioni Generale per il Paesaggio, le Belle arti, l'Arquitettura e l'Arte contemporanea) eta Kultura Ondare eta Jarduerako Ministerioak garaturikoa. Estatuko museo, galeria eta aztarnategi guztietarako doako sarreren eskaintzan datza. Gainera, ekimenak % 50eko deskontuak ere biltzen ditu 18-35 urteko pertsonentzako.

- **Free admission for youth**

Holanda. Nori zuzendua? 12 urtetik beherakoei eta 18 urtetik beherakoei.

Holandako museoen sareak doako sarrera eskaintzen die 12 urtetik beherakoei eta zenbait beherapen ere bai 18 urtetik beherakoei.

- **Cultural Youth Passport** (www.cjp.nl)

Herbehereak. Nori zuzendua? 27 urtetik beherakoei.

27 urtetik beherakoak deskontuak izaten dituzten antzoki, zine, museo eta kontzertuetarako sarreretan eta baita DVDak, aldizkariak, arropa, bidaiak eta osasun-aseguruak erosteko ere. Pasaporte honek urtean 15 euroko kostua du eta kostu txikiak kulturaren sektorean gazteen parte-hartzea bultzatzeko lagungarriak izatea da ideia.

- **Free Theatre Initiative** (www.artscouncil.org.uk)

Erresuma Batua. Nori zuzendua? 26 urtetik beherakoei.

Arts Council of England erakundea da programa honen buru eta gazteen artean antzerkiaren kontsumoa sustatzeko zenbait jardun biltzen ditu. Egiten dituen jardunen artean egun jakin batzuetan arte eszenikoetako ikuskizunetarako sarreren zati baten eskaintza dago, betiere doakoak 26 urtetik beherakoentzat.

- **Bono Cultural 18** (www.juntadeandalucia.es/cultura/bonocultural/opencms)

Espainia (Andaluzia). Nori zuzendua? 18 urtekoak.

Kultura Bonoko 60 euroko balioa duen taloitegia da, dagokion urteko urtarrilaren 1etik aurrera 18 urte betetzen dituzten Andaluziako Autonomia Erkidegoko gazte guztiek jasotzen dutena.

Web-orri espezifiko batean eta Facebook-eko beste batean eskuragarri dagoen Kultura Eskaintzako Katalogo baten eskaintako produktu edo zerbitzuekin truka daitezkeen bonuak biltzen ditu taloitegiak.

b. Espresibitate-politiketan eta eskaintzaren egokitzapenean oinarrituriko programak

- **Fresh Film Festival** (www.freshfilmfestival.net)

Irlanda. Nori zuzendua? 18 urtetik beherakoei.

1997an hasi zen festibal hau eta 18 urtetik beherako gazteek produzituriko edo zuzenduriko ikus-entzunezko lanak aurkezten ditu. Festibalaz gain, Fresh ekitaldia gazteei zuzenduriko zinemako programazio erregular ere bihurtu da.

Festibal honen helburu nagusia gazteak ikus-entzunezko sorkuntza garaikidearekin sentsibilizatzea da, haien adin bereko gazteek eginiko sorkuntzen bidez.

Arts Council of Ireland programaren ekimena da programa hau, betiere Limerick City Council, el Limerick County Council eta Clare County Council erakundeen laguntzarekin.

- **Stranger Festival** (www.strangerfestival.com)

Herbehereak.

Interesgarri zaizkien gaiei buruz gazteek egindako bideoen online plataforma bat da. 20 herrialdeetako gutxi gorabehera milioi bat pertsonak esekitzen dituzte beren proposamenak sarean programa honen barruan.

Webgune interaktiboaz gain, erakusketa ibiltari bat eta lehiaketa bat ere antolatzen dira.

- **E-museum** (www.e-museum.dk)

Danimarka.

Hainbat zerbitzu eskaintzen dituen hezkuntza-atari online bat da: orri espezifikoak, online jokoak, rol-jokoak, museoen hezkuntza-programak eta tour birtualak.

c. Integrazio- eta gizarteratze-politiketan oinarrituriko programak

- **KulturPass** (www.hungeraufkunstundkultur.at)

Austria. Nori zuzendua? kultura-eskaintza baliatzeko zailtasun ekonomikoak dituzten gazteak eta publikoa oro har.

Vienako Schauspielhaus erakundearen eta Armutskonferenz gizarte-sarearen ekimena da. Kultura-eskaintza bat doan baliatzeko aukera ematen die baimen honek baliabide gutxiko gazteei (gizarte-laguntzako prestazioen onuradunak, errefuxiatuak, langabeak, eta abar). Zazpi kultura-erakundek parte hartzen dute gaur egun programa honetan.

- **BogStar** (www.bibliotekogmedier.dk)

Danimarka. Nori zuzendua? baliabide gutxiko edo ekonomikoki pobreturiko guneetan bizi diren 10 urtetik beherakoei.

Danimarkako gobernua da programa honen buru Danish Library eta Media Agency erakundeekin batera. Programa honen onuradunek adinei egokituriko doako liburuak jasotzen dituzte, jarduerekin, material gehigarriekin eta irakurketan nola lagundu behar den azaltzen duen gurasoei ematen zaien informazioarekin batera.

- **Passeurs d'images** (www.passeursdimages.fr)

Frantzia. Nori zuzendua? Gizarte-zerbitzuen tutoretzapeko 18 urtetik beherakoak, «lehentasunezko» auzoetan bizi direnak, karitatezko erakundeen laguntza jasotzen dutenak edo baliabide gutxiko landaguneetan bizi direnak.

Hiriguneetako baliabide gutxiko gazteen kontzientziazioa sustatzeko abiarazitako plana da.

Zenbait programatan oinarrituta burutzen da plana:

- Des cinés, la vie. Gazteak irudien garrantziarekin eta edukiarekin sentsibilizatzea du helburutzat, hainbat film emanda. Saioetan hainbat hezitzailek eta zinemako profesionalek lan egiten dute.
- Film Route in Festivals. Zenbait zinemalditara bertaratzean datza, horien funtzionamendua ezagutu dezaten, profesionalekin elkartu daitezten eta zenbait emanaldi eta jardueratan parte har dezaten.



EAEko gazteen kultura- kontsumoaren sustapena

4

Gazteen kultura-kontsumoaren azterketak gazteria-politikatik datozen ekimenak, beren esku-hartze esparruen artean planteamendu integralak biltzen dituztenak, zein kultura-politikatik datozen ekimenak uztartzen ditu. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, Kultura Sailak Gazteria Zuzendaritzaren jardunen bidez sustatzen dituen politikak dira, baita Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren zeharkako jardunen arteko zenbaiten bidez ere.

Ondoren biltzen diren programak proposamen bidez biztanleria gaztearen kultura-ohiturak gehitzea eta sendotzea helburu duten politikak azpimarratu nahi ditu, katalizatzaileran egin ditzaten kolektibo horren kultura-kontsumoa gehitzeko, tarifen beherapenekin, txartel bereziekin eta kolektibo horrentzat ad hoc diseinaturiko kanpaina eta programak. Ez da kultura-praktika sustatzeko bestelako jardunik biltzen, hala nola gazteentzako programa espezifikoak, eskola-programak, lokalen garapena, praktika amateurra eta informazio-zerbitzuak, eta abar

4.1. Eusko Jaurlaritzak sustaturiko ekimenak

Gazteria-politketatik

Datozen urteetan euskal administrazio publikoen gazteria-politikak bideratuko dituen esparru orokorra etorkizuneko Gazteriaren Euskal Legeak eta *III. Gazte Planak (2020)* mugatzen dute. Lege-ikuspuntutik begiratuta, Gazteriaren Euskal Legearen 24 artikulua ezartzen ditu Plan Orokorren esku-hartze ildoak, eta honako hau adierazten dut kulturari dagokionez: «Euskal herri-administrazioek gazteen laneratze-prozesua bultzatzea eta errazago egitera eta gazteentzat kalitatezko enplegua sustatzera bideratutako berariazko programak eta ekintza zehatzak burutuko dituzte».

Gazte Planari (2020) dagokionez, honako helburu hauek nabarmentzen ditu kulturari dagokionez:

- Gazteen kultura-jarduera bere fase guztietan sustatzea eta babestea.
- Gazteentzako kultura-eskaintza indartzea eta Euskadi artista gazteentzako kultura erakartzeko gune bihurtzeko aukera sustatzea.
- Euskararen erabilera sustatzea kultura-jardueren eskaintzan.
- IKTen erabilera indartzea gazteen artean, ikasteko, komunikatzeko, informatzeko eta parte hartzeko erreminta gisa.
- Gizarte-komunikazioko bitartekoetan eta teknologia berrietan gazteen errealitatearen diskriminatzailea eta estereotipua ez duen irudia sustatzea.
- Euskal gizartearen errealitate kulturantz eta kultura arteko harremanak aitortzea eta sustatzea.

Zalantzarik gabe, gazte kolektiboarentzako kultura-kontsumoaren sustapenaren arloko inpaktu handieneko ekimen espezifikoa «**Gazte txartela - European Youth Card**» da, eta 2.000 deskontu inguru eskaintzen ditu hainbat esparrutako ondasun eta zerbitzuak eskuratzean. 2010. urtearen amaieran 14-30 urteko 63.367 gazte ziren txartelaren titular eta, 2010ean eginiko berrikuspen-prozesuaren ondoren, EAEko 350.000 gazteen % 30ek lortzea espero da, eta Euskadiko gazteen erreferentzia-txartela izango da orduan. Beste erkidego batzuekin izenpeturiko akordioez gain, Sarea antzoki-sareekin izandako lankidetzaren bidez 2010ean abiarazitako

deskontuen pack bat biltzen duen kultura-eskaintza era kultura-programatzaileekin egindako beste 13 akordio ere nabarmendu behar dira.

Une honetan, 112 kultura-establezimenduk eskaintzen dituzte hainbat motatako deskontuak:

- Zinema: atxikitako 23 zineen arteko deskonturik ohikoena astelehenetik ostiralera ikuslearen eguneko prezioa baliatzea da, areto komertzialei gagozkiela.
- Ikuskizunak eta jaialdiaik: Donostian izaten diren hiru jaialdi, Bilbon izaten diren hiru, Gasteizen izaten diren bi eta Getxon izaten den bat biltzen ditu eskaintzak, zazpi antzerki-aretoz gain. %10-50eko deskontuak biltzen ditu eskaintzak, hainbat esparrutan, hala nola jazza, zinema, antzerkia edo dantza.
- Musika: Kultura-zentro eta areto publikoetako programazioa deskontuak biltzen dituzten eskaintzak, bi orkestra sinfonikoen kontzertuez gain.
- Museoak: zortzi museok eskaintzen dute deskontuekin sartzeko aukera, prezio-erdirainoko deskontuekin ere.
- Argitalpenak: bi egunkarik, astekari batek, Argia aldizkariak eta Eusko Jaur-laritzaren argitalpenek % 20-25eko deskontuak eskaintzen dizkiete Gazte txartelaren titularrei.
- Beste deskontu batzuk nabarmentzekoa da Donostiak Kulturak antolatzen dituen ikastaroetan aplikatzen duen % 25eko deskontua edo Gipuzkoako Aldundiak Gaztemaniak programarako eskaintzen duena.

Lurralde-banaketari dagokionez, Gipuzkoa nabarmentzen da, atxikitako 58 establezimendurik, atzetik Bizkaia eta ondoren Araba dituela (44 eta 17, hurrenez hurren). Azkenik, aipagarria da hiriburuek dagoen eskaintzaren zati handi bat biltzen dutela.

Kultura-politikatik

Eusko Jaur-laritzaren Kultura Sailak sustaturiko beste ekimenetako bat **Kultura Bona** da, jende guztiarentzat bada ere biztanleria gaztearen artean onarpen handia duena: 2009an, ekimenaren lehenengo urtean, 30 urtetik beherako 10.500 gazte inguruk erabili zuten bona, guztizkoaren % 19k.

Produkzio artistiko eta kulturalaren merkatua dinamizatzeko programa bat da Kultura Bonua, Gabonetako kanpainan (abenduen erdialdetik urtarilaren erdialdera) kultura-produktuen erosketa bultzatuz. Merkaturatzean eta erakusketan du zuzeneko eragina eta kultura-sorkuntzako eta -produkzioko faseetan egiten diren inbertsio publikoen errentagarritasunean ere badu eragina. Eragiten duen ondorio ekonomiko positiboaz gain, kultura erosteko eta oparitzeko balioa ere sustatzen du. Bonu bakoitza 25 euroko prezioan saltzen da, eta eramaileari 40 euroko balioa ematen dio liburuak eta musika eskuratzeko, baita museo eta zuzeneko ikuskizunetarako eta beste zenbait kultura-ekitaldietarako sarrerak ere. Eusko Jaurlaritzak jartzen du 15 euroko aldea bonu bakoitzean.

2009 kanpainan, 287 establezimendu atxiki ziren, eta % 27 gehitu zen zifra hori 2010ean, 366 establezimendutara iritsi arte. Horien artean liburutegiak dira nagusi (% 77), baina hor daude, halaber, antzokiak (% 7), musika-dendak, (% 5), museoak (% 4), kontzertu-aretoak (% 4) eta zinemak (% 3). 2011n 364 establezimendutan erabil daiteke bonua.

Atxikitako establezimendu motarekin uztatuta, liburuak edo diskoak erosteko erabiltzen da batez ere bonua (zortitik hamar). Bestalde, interesagarria da azpimarratzea publiko berriak, horien artean publiko gaztea, antzerkura hurbiltzeko baliagarri izan dela.

4.2. Beste ekimen interesgarri batzuk

Ugari dira EAEko kultura-erakunde eta -zerbitzuek zuzeneko haborokin gisa sustatzen dituzten biztanleria gaztearen kultura-kontsumoa babesteko ekimenak, tarifa-murrizketa eta deskontu bidez, Gazte-txartelaren eramaileentzako abantailen bidez, eta abar. Ekimen bereziene-tako batzuk deskribatzen dira ondoren:

- **«Kultura 18/K18» programa**

Bilboko udalaren Kultura eta Hezkuntza Arloaren ekimena da, helburutzat gazteen artean zenbait adierazpen artistikotarako hurbilketa sustatzea duena, hala nola antzerkia, dantza, opera, jazza edo zinema. 2011 18 urte beteko 2.500 gazteentzako pentsatuta dago eta urtean zehar gehienez 18 kultura-ikuskizunetarako doako sarbidea ahalbidetzen die. Ikuskizun bakoitzerako laguntzaile batentzako sarrera batekin osatzen da, adin-mugarik gabe, txarteldegiko prezioaren gaineko % 50eko deskontuarekin. Baldintzak betetzen dituztenek Udalaren webgunean eska dezakete Bilboko K18 txartela edo 010 informazio-telefonoan. Egun gutxian etxean jasoko dute doan, beste bi taloitegirekin batera: bata bere txartelekin trukatzeko txartelekin eta bestea laguntzailearentzat.

- **«Ordu Gaztea» ekimena**

Sarrerak prezio murriztuan erosteko aukera ematen die 30 urtetik beherakoei Donostia Kulturak, honako ezaugarri hauekin:

- Hiru gunek: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Kluba eta Antzoki Zaharra.
- Hiru diziplina artistiko: antzerkia, musika eta dantza.
- Prezio bakarra: 3 euro.
- Ikuskizunak hasi baino 30 minutu lehenago, aukeraren arabera.
- Haurrentzako ikuskizunak ez dira kanpaina honetan sartzen.

Kursaal Fundazioak ere ekimen bera eskaintzen du musika klasikoa gazteen artean zabaltzeko.

Ondorioak

2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistikaren eta EAE zein erkidegotik kanpo garaturiko politiken azterketa espezifikoak izaera desberdineko hainbat ondoriotara iristea ahalbidetzen digu:

2007-2008ko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistikari dagokionez tresna gisa

Gazteen kontsumoaren errealitatera hurbiltzea ahalbidetu du estatika horrek, EAE-ko batez bestekoekiko konparazio batean oinarrituta. Baina txostenaren sarreratik adierazi denez, muga handiak ditu eta tresna egokia premia ere adierazi behar da, aldagaia eta perspektiba berria kontuan hartzeko moduan, egokiagoak oroharreko kultura-kontsumoaren errealitaterako eta, espezifikoki, egungo biztanleria gaztearen kultura-errealitaterako. Orain arte erabilitako planteamenduaren defizitaren adibide bat IKTek azterketan duten presentzia eskasegia da, biztanleria gaztearen artean kultura-kontsumoko tresna gisa duen erabilerak orain arte inoiz ikusi gabeko mailak baditu ere. Era berean, esparru teknologikoak azken urteetan izaten ari diren aldaketa bizkorak: LTDaren (Lurreko Telebista Digitala) agerpena, smartphone mugikorren belaunaldi berria baita tabletana ere gizarte-sareen komunikazio-, harreman- eta kontsumo-plataforma gisako zabalkundearekin batera, ingurune jakin bat ari dira sortzen, kultura-kontsumoko moduak oso zuzenean eraginpean hartzen dituen, batez ere biztanleria gaztearen artean. Inguru berri hori ez da oraindik aztertzerik izan, baina egungo azterketa-sistema aldatzera behartuko du, zalantzarik gabe.

Estatistikaren emaitzei dagokienez

Gaur egun dugun tresna egokitzeko premiaz haratago, azterketa bat egin ahal izan da tresna horri esker, eta bertan baieztatzen denez, oro har, EAEko biztanleria gazteak kultura-kontsumoko maila handiagoak ditu euskal gizarte osoak baino. Adieraztekoa da, dena den, kontsumo-maila horiek zuzeneko harremana dutela biztanleria gazteak hezkuntza- eta prestakuntza-maila handiagoa izatearekin. Izan ere, hezkuntza eta kultura (hezkuntza-maila eta kultura-kontsumoa), kasurik gehienetan, txanpon beraren bi aldeak dira. Laburbilduta, honako hau ondoriozta daiteke:

- Oro har, gazteek kultura-jarduerengatik duten interesa EAEko batez bestekoa baino txikiagoa dela adierazten badute ere, argi eta garbi dira aktiboagoak dagokien kontsumoan. Ildo horretan, gazteen eskutiko kultura-kontsumoaren gizarte-balorazioaren jaitsiera posiblea antzematen da, egiazko praktikarekin kontradikzioan. Antzerkira eta operara bertaratzeari dagokionez soilik dituzte gazteek batez bestekoak baino kultura-kontsumoko batez besteko txikiagoak.
- Biztanleria gaztearen artean adin-taldean arabera alde handiena erakusten duen kultura-jarduera liburutegietara bertaratzea da, eta ohikoagoa da gazteen artean. Horrenbestez, hurbiltasuneko kultura-ekipamendu hori estrategikoki kokatzen da kulturaren sartzeko edo barneratzeko ate gisa kolektibo gazteen artean.
- Banako jarduerak –hala nola irakurketa– ohikoagoak dira adin handiagoko taldeen artean gazteen artean baino, eta taldean egiten direnak, ordea, –hala nola kontzertuetara bertaratzea– arruntagoak dira adin txikiagokoen artean, eta kultura-jarduerak sozializazio-prozesuko alderdi garrantzitsutzat ere hartu behar dira kontuan.
- Nolabaiteko genero-desberdintasuna dago kultura baliatzeari dagokionez gizon eta emakume gazteen artean, eta azken horiek dira kultura sarriago kontsumitzen dutenak.
- Konparazio-adierazle bidez egiaztatzen da EAEko gazteek ez dutela oso alda nabarmenik Espainiako eta Europako gazteekin alderatuta, baina handiagoak dira honako hauetan: irakurketan Espainiako batez bestekoaren zertxobait gainera eta kultura-praktikan EBren 7 puntu gainera.
- Gazteek denbora gutxiago eskaintzen diote telebista ikusteari eta irratia entzuteari batez bestekoak baino, eta jardueraren ordez beste batzuk

egiteko joera agertzen du, hala nola Interneten sartzea, askoz ere handiagoa baita gazteen artean biztanleriaren batez bestekoaren artean baino.

- Hizkuntzari dagokionez, lehenik kontuan izan behar da EAEko gazteek batez bestekoak baino hizkuntza-gaitasun maila handiagoak dituztela. Baina, gainera, zenbait jardueratan, hala nola irakurketan, euskarak elebidunen artean duen pisua argi eta garbi da handiagoa biztanleria gaztearen artean batez bestekoarekin alderatuta.
- Biztanleria gazteak etxeko IKT ekipamendu handiagoa du batez bestekoak baino eta zenbat eta gazteagoa orduan eta ekipamendu handiagoa. Kultura-kontsumoren bat egitera Interneten gehien sartzen direnak gazteenak izatea, hots, 15-19 urtekoak, arlo digitalak eta birtualak kultura biztanleria gazteari hurbiltzeko duten garrantziaren erakusgarri da.
- Gazteek gehiago parte hartzen dute kultura-jardueretan biztanleriak oro har baino eta nabarmentzekoa da 15-19 urteko taldearen ia erdiak hala egiten duela.

Kultura-kontsumoa sustatzeko politikak modelizatzeari dagokionez

Eginiko ikerketari esker esperientzia guztien modelizazio bat landu ahal izan da, prezioan oinarrituriko politikak nagusi direla horien artean. Horiek pizgarri ona izan daitezke kultura baliatzeko, baina izaera ekonomikoko oztopoetan soilik dute eragina. Ildo horretan, azterlan ugari erakusten dutenez, beste oztopo batzuk ere badaude erabakigarriagoak direnak, batez ere hezkuntza-mailari loturikoak.

Gazteen parte-hartzea eta eskaintzaren egokitzapena sustatzeari loturiko politikak, kuantitatiboki inpaktu txikiagoa badute ere, kualitatiboki interesgarriak dira epe luzerako dute inpaktua kontuan izanda. Dena den, arrisku handia erakusten dute lurraldearen kultura-errealitatearekin lotzen ez diren kultura-zirkuitu paraleloak sortzeari dagokionez.

Azkenik, gizarteratzearekin loturiko politikak publiko espezifikoetara zuzenduta daude, eta gazte izateari beste faktore batzuk ere batu beharko zaizkio, sozioekonomikoak edo bestelakoak. Erreferentziazko esperientzia interesgarriak daude, nahiz eta kontuan hartu behar den betiere alde berrelikatzearen arriskua, eta hori horrela, ona da kultura-politika eta -eskaintza normalizatzaile edo normalizatuei lotuta egotea.

EAEEn garaturiko politikei dagokienez

Lehenik, garrantzitsua da azpimarratzea lege- eta jardun-planak (III. Gazte Plana) eztabaidan dauden unean egiten dela txoten hau eta, hortaz, ezin dira horri buruzko balorazio argiak egin. Dena den, esan daiteke, oro har, garaturiko programa nagusiek, gazteria-politikaren esparrutik zein kultura-politikenetatik, prezioari buruzko jardun-ereduak izan dituztela (Gazte txartela, Kultura Bona, K18, Ordu gaztea). Egia da, halaber, EAEEn kontsumoa sustatzeko ekimenak daudela, parte-hartzearen bidez, baina ez dira azterketa honetan bildu tokikoak direlako eta, hortaz, ez daudelako, orain arte behintzat, estrategia zentraletan bilduta.

Gomendioak

Txosten honen helburu nagusia zenbait orientazio definitzea da EAEko gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko politikak etorkizunean garatzeko. Bi ardatzetan oinarrituta formulatzen dira gomendio horiek: lehenik, ikuspegi diskurtsibo, teoriko eta jardun-printzipioetan oinarritutakotik ikusita, eta, bigarrenik, horrelako politiken artikulazio-proposamen bat definituta.

Elementu diskurtsiboei dagokienez

1. **Eztabaida teorikoak gainditzea.** Urtetan, jardunak alde batera edo bestera bideratu dituzten eztabaida teorikoak izan dira kultura/gazteriako politiken esparruan. Joera batek gazteen begirada kultura-politikerara gaineratzeko premia defendatzen du, eta aurkakoak, aldiz, kultura-azentua duten gazteria-politiken premia defendatzen du. Ziur asko, erdiko bidean dago konponbidea, eta hainbat alderditatik jarduteko premian.
2. **Errealismoa.** Kultura baliatzeko politikek muga argiak dituzte: testuinguru-elementuen pisua, hala nola biztanleriaren hezkuntza-maila edo lurralde-errealitatea, kultura-kontsumoaren, gazte-kontsumoaren eta kontsumo orokorraren gain sendo jarduten dutenak. Horrenbestez, testuinguru hori, hura eraldatzeko zailtasunak eta konpentsazio-izaerako jardunak egiteko aukerak kontuan hartu behar dituzte politikek.
3. **Bikaintasuna.** Publiko murriz eta heldu bati zuzenduriko kultura-adierazpenen balioztat kontuan hartu da kasu askotan bikaintasuna, zirkuitu bereziak sortuta. Baina egiaz, zeharkako balioa izan behar du bikaintasunak, kalitatezko gehieneko eskakizun gisa ulertuta eskaintza guztian eta garaturiko politikeran, jendeari oro har zuzendurikoetan zein kolektibo jakin batzuei, hala nola gazteari, zuzendurikoetan.
4. **Aisia edota kultura.** Gazte-politikak aisiari lotzeak kulturatzat har daitekeena eta aisiatzat balioesten dena bereizi izana eragin du zenbaitetan. Hau da, ekimenak beren artean aldentzen dituzten etiketak dituzten hierarkiak sortzen dira. Saihestu beharrekoa.
5. **Eredu berriak.** IKTen garrantzia gazteen kultura-kontsumoko eredu berrietan eta sorkuntza moduetan oso kontuan hartu beharreko faktorea da, erabakigarria dela erakusten baitu argi eta garbi.

Gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko politikak artikulatzeari dagokionez

Horrelako politikak ondo artikulatzeko funtsezko lehen alderdi bat sail arteko beharrezko **koordinazioa** da, kultura-, gazte- eta hezkuntza-politiken arduradunei gagozkiela. Era berean, garrantzitsua da beste toki-administrazio batzuekin izan beharreko elkarrizketa eta koordinazioa. Ildo horri jarraiki, horretarako gune eta tresna espezifikoak sortzea beharrezkoa da (plangintza eta lan-mahaiak).

Gazteen kultura-kontsumoa sustatzeko **politika integral bat** bi politika motaren inguruan artikulatu beharko litzateke: kultura-demokratizazioari loturiko inplizituak eta kultura-demokraziari loturiko esplizituak. Esklusiboki publiko gazteari zuzentzen ez zaizkienak dira inplizituak, politika orokorretan integratzen direnak baina kolektibo gazteen ere eragina dutenak. Esplizituki publiko gazteari zuzendurikoak dira esplizituak.

Kultura-demokratizazioari loturiko politika inplizituak

Kultura kontsumitzeko eta baliatzeko politika ikuspegi integral eta orokor batetik aztertu behar dira, lehen adierazitako oztopoen (hezkuntza, hurbiltasuna eta eskaintzaren erakargarritasuna) murrizketa abiapuntutzat hartuta. Biztanleria osoaren arteko kontsumo-maila handiagoak sustatzeko politika orokor batek ondorio espezifikoak izango ditu biztanleria gaztean, horrek kontsumitzen baititu kultura-produktu eta -zerbitzu gehien.

Kultura-demokratizaziorako politikak, biztanleriari oro har kultura baliatzea ahalbidetzen diotenean, gazteen kultura-kontsumoko indize handiago lortzera eraman dezakete. Honako hauek aipa daitezke horien artean:

- Hezkuntzaren aldeko apustu estrategikoa: hezkuntza da funtsezko faktorea biztanleriaren kultura-kontsumo mailan.
- Hurbileko kultura-ekipamendutako zuzkidura (liburutegiak eta kultura-zentroak). Lehen ikusi dugunez, biztanleria gazteak erabilera aipagarria ematen die horiei, sarrera-ate egokia direla erakutsiz.
- Hiriburu-ekipamenduen hurbiltasuna azpimarratzea. Iragazkortasun-programa espezifikoak garatzea kultura-ekipamendu nagusietan dagozkien hezkuntza-programen bidez, tailerrak eginda edo izaera zentralekoekiko jarduera paraleloak eginda. Bere ingurune hurbileneko gizarte-agenteeekin harreman handiagoa bilatzea.

- Kultura-kontsumoa oro har sustatzeko politikak garatzea, gazteen artean inpaktu handiagoa izaten dutenak, hala nola deskontuak edo antzeko beste ekimen batzuk ahalbidetzen dituzten kultura-txartelak.
- Interneteko presentzia eta komunikazioko eta kultura-partaidetzako 2.0 tresnak garatzea, biztanleriari oro har zuzendu ahalko zaizkionak baina biztanleria gazteak argi eta garbi errazago baliatu ahalko dituenak.

Kultura-demokraziari loturiko politika esplizituak

Politika orokorrekin batera, jardun eta programa espezifikoak jarri behar dira praktikan biztanleria gaztearentzat, eta horien artean bereizi beharrekoak dira kolektibo gazte osoari zuzendurikoak eta publiko jakin batzuen target deiturikoei zuzendurikoak. Ildo horretan, biztanleria gazteari dagokionez, eraginkorragoa izan liteke kolektibo jakin batzuei zuzenduriko sustapen-mekanismoak definitzea gazte guztiei zuzenduriko programak baino, sektore oso heterogeneoa baita.

Horrelako politikak dira kultura-demokraziaren kontzeptuari lotu beharrekoak. Hau da, sarrera subjektu pasibo gisa nabarmendu baino biztanleria gaztearen espresio-ahalmena eta kultura-eskaintzaren sorkuntzan, dagokion eskaintzarenean eta kontsumoan duen parte-hartzea nabarmentzen dituena.

Sorkuntza-kode propioekin funtzionatzen duen gazte-kulturaren garapena ahalbidetu behar dute politikek, eta zaila zaie kode horiei beren lekua aurkitzea politika inplizituekin lotuago dauden egitura eta programetan. Ildo horretan, honako hauek dira jardun-ildoak:

- *Off* programak garatzea gora-goranzko bidean dagoen sorkuntzari zuzenduriko kultura-ekitaldi nagusietan, izaera ofizialagoak diren programak baliatzen ez dituzten publiko berriengana ere iritsi daitezten.
- Jaialdiak, sari eta bekak gazteen protagonismoarekin garatzeko proposamena eta ondorengo aurkezpen publikoa.
- Egitura ofizialetatik kanpo beren jarduera garatzen duten gazte sortzaileen kolektiboak detektatzea eta indartzea, betiere haien lan-kodeak errespetatuta.
- Programazio espezifikoak garatzea sortzaile gazteen sorkuntza-proposamenetatik abiatuta.



- Prestakuntza artistikoaren aldeko apustua espresio-tekniken jakintza sustatzeko, hots, arteengatiko interes handiagoa eragin dezaketena.
- Biztanleria gaztearentzako programa espezifikoak garatzea, artea eta teknologia berriak uztartuko dituztenak, espresio-formatu berriak sustatuta.
- Kultura-zirkuituak sortzea bigarren hezkuntzako ikastetxeen artean, proposamenen trukea ahalbidetuko dutenak.
- Euskarazko sorkuntza babesteko politikak biztanleria gaztearen errealitate espezifikora egokitzea, biztanleriaren tarte horretan dagoen erabilera- eta jakintza-maila handiagoa aprobetxatuta, hainbat modutan.



KULTURA SAILA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA